

**Netiketak:** Interneten bete behar diren arau, bete beharren multzoa.

# Portaera ona sarean ere bai!

1

Errespetuz hitz egin. Kaixo esan, agurtu eta eskerrak eman.

2

Ondo idatzi, zaindu ortografia ondo ulertu zaitzaten.

3

Egoera deseroso baten aurrean bazaude, haserre, lasaitu eta ez egin ezer bulkadaz. Ez erantzun era oldarkorren.

4

Ez idatzi maiuskulaz. Sarean maiuskula=ohiu egin.

5

Zaindu besteen pribatutasuna. Ez zabaldu, partekatu edo etiketatu besteak azaltzen diren argazki, bideo edo informaziorik, haien baimenik gabe.

6

Izan ezazu Internetetik kanpo duzun jarrera berdina, bai ezagunekiko eta baita ezezagunekiko ere.

7

Informatzeko garaian jo ezazu beti iturri instituzionaletara edo/eta ezagutzen dituzun komunikabideetara.

8

Informazio berri bat ezagutzen duzunean, begira ezazu leku (URL) batean baino gehiagotan egia dela ziurtatzeko.



Gazteak  
ziber-  
eskubideen  
alde

KULTURA DIGITAL@ erabilera ona eta sorkuntza

kulturadigitala.eus

[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua



ORAIN GAZTEAK